

IKUSMIRAN 18

Egoeraren azterketa

2024ko maiatza

18

Ikusmiran 18 | 2024ko maiatza

Egoeraren azterketa

Aurkibidea

SARRERA	4
KOKAPENA	5
ONDORIO NAGUSIEN AZTERKETA.....	6
1) Hazkunde ekonomikoa ez dator bat herritarron bizi kalitatearen bilakaerarekin.....	6
2) Beraz, hazkunde ekonomikoa ez da eredu sozioekonomikoaren osasunaren adierazle	9
3) Ehun ekonomikoaren bilakaerak, ekonomia ereduaren aldaketaren norabidea zertzelatzen du: pribatizazioa eta lan baldintzen (soldaten) okertzea.....	10
4) Enplegu prekarioa, lan merkaturako igarobidea egiten duten eta egoera zaugarrian dauden herritarrentzat errezeta	12
5) Herritarren arteko ezberdinkeriak gero eta sakonagoak dira, aberastasunaren birbanaketa orekaturik gabe	14
6) Bizitzaren garestitzeak zuzenean eragiten dio egoera zaugarrian dauden herritarrei. 2023an Hego Euskal Herrian 457.129 herritar zeuden pobrezia eta bazterketa sozialerako arriskuan.	16
7) Ibilgailu pribatuarekiko menpekotasun sozial eta ekonomikoa sortzen duen mugikortasun eredu nagusi Euskal Herrian, garraioa izanik BEG isurketa gehien sortzen duen sektoreka.	21

SARRERA

Eskuartean 18.ikusmiran duzu, Euskal Herriko egoera sozioekonomikoa aztergai duena. Egoera sozioekonomikoa aztertzerako garaian, klase zein herri ikuspegia txertatzea izan da gure ahalegina, hala nola feminismoa eta ekosozialismoa.

Euskal Herria osatzen duten zazpi lurraldeak izan ditugu azterketa eremu, baina lurralde guztietako datuak lortzea, zenbait kasuetan, ezinezkoa izan da. Nazio aitortzarik gabe, Lapurdi, Behe Nafarroa eta Zuberoak ez du estatistika eremu ofizialik eta maiz eremu zabalagoetara jo behar izan dugu. Beste kasu batzuetan, metodologia ezberdinak erabili dira lurralde bakoitzean, ponderaziorako aukerak ezinezko eginez; beraz, datuak administrazio eremuaren arabera aurkeztu ditugu. Amaitzeko, datu estatistikoaren eguneraketa atzeratu edo guretzat funtsezkoa den adierazlea neurtzen ez dela topatu ditugu; kasu hauetan, datu isolatua izan arren, berau kokatzeko hautua egin dugu.

Argipen hauek eginda, goazen harira!

KOKAPENA

Ezgonkortasun handiko testuingurua da bizi duguna. Munduko txoko ezberdinetan piztuta jarraitzen duten gerrek eragin handia dute erabaki geopolitikoetan, herritarron bizitzak baldintzatuz. Interes geopolitiko ezberdinen talkak daude energia salerosketatan egoniko aldatetatan edota gai ezberdinen garraioan areagotzen ari diren zailtasun zein oztupoetan. Ondorioz (eta naturaren muga biofisikoak kontutan hartuz), lehengai eta elikagai ugariaren eskasia dago, munduaren Hegoalde Globalean goseteak zein ondoriozko deserriratzeko behartuak areagotzen dituztenak eta Iparralde Global "aurreratuan" prezioen igoera dakartzatenak, langile klasearen erosahalmenean galera gero eta handiagoa suposatuz.

Aurreikuspen ekonomikoek hazkundea nahiko txikia, ezgonkorra edo hauskorra iragartzen dute, edozein gora beherek alda dezaketena. Horren erakusle dira Gobernuak egiten dituzten aurreikuspenen etengabeko eguneratzea, maiz okerrera egiten dituztenak. Azken datuen arabera, HEHan 2024rako aurreikuspena %1,77koa da, beheranzko norabidean; Europar Batasunarena %1,5ekoa, gorantz, eta mundu mailakoa %2,90koa, apenas aldatetarik gabe.

Datu makroekonomikoetan aurkezten zaigun hazkuntzak, kezkarriak diren hainbat adierazle sozioekonomikoren hazkuntza dakarte, herritar zein langilearen bizi baldintzak okertu eta langilearen pobretzerako oinarri estrukturalak jartzen dituztenak. Besteak beste, honakoak:

- Etengabeko desindustrializazioa gertatzen ari da: industria sektoreak BPG-arekiko duen pisua %2,87ko galera izan du 2008tik (zerbitzuak sektorearen pisua %6,24 igo den bitartean); industria jarduera nagusitatzat duten establezimenduak %22,68 egin dute behera 2012.urtetik.
- Enplegu prekarioaren hazkundea etengabekoa da: 2024ko apirilean 139.794 langabetu zeuden Hego Euskal Herrian, pasa den urtean baino 949 gehiago; egoera prekarioan dauden langileen langabezia tasa balio altuetatik ezin jaitsi (25 urtetik beherako gazteak %20,5; langile migratuak %25,5; emakumeak %9,2) ; sortzen ari den enplegua prekarioa da aldizkako kontratu finkoak bikoiztu izanak erakusten duen moduan, esaterako.
- Ehun ekonomikoa ahultzen ari da: 2012.urtetik 24.299 establezimendu gutxiago daude (%12,13), 200 soldatapeko langiletik gorako establezimenduak dira gora egin duten bakarrak (%8,45), multinazionalak zein zerbitzu jarduerak nagusituz.
- Soldatek BPG-arekiko duten pisuaren galera etengabea da, azken urtean 3,5 egin du behera

Kezkatzen gaituzten adierazleok Euskal Herriko ekonomia eredu finkatzen dute. Izan ere, langileen bizkar sortzen den aberastasuna gutxi batzuen poltsikoetan metatzen da. Enpresa handien, bereziki energia ekoizpenari loturikoen, irabazi garbiak gero eta handiagoak diren bitartean, langileon soldatatan ez plusbalia hori rebertitzen. Horren adibide garbia da Iberdrola, zeinak elektrizitatearen prezioa igotzen ari zen 2021.urtetik irabazi garbiak %23,43 handitu dituen, ez ordea langileon soldatak ordaintzera bideratzen duen diru kopurua. Bestetik, datuetan ikus daitekeen bezala, Euskal Herriko presio fiskala Europako batz bestekoaren azpitik dago, zehazki 8,6 puntu. Honek esan nahi du, zerga bidez diru gutxiago jasotzen dela. Langileok gara funts publikoetara diru gehien bideratzen dugunok zerga bidez. Beraz, politika fiskal justu eta progresibo batek, presio fiskala handitzea ahalbideratuko luke, langileok gehiago ordaindu gabe, enpresa handiek lortzen dituzten irabaziengatik dagozkien zergak ordainduko balituzkete.

Kezkarako beste elementu bat da hazkunde ekonomikoaren paradigmatik ez duela naturarekiko harremana aztertzen edota eguneroko jarduera ekonomikoak naturan duen inpaktua neurtzen. Bada, 2008tik BEG isurketak %12 egin du gora Nafarroa Garaian eta EAEn legeak ezartzen dituen helburuetatik urrun dago (1990tik %15,84 murriztu arren, 2030. urterako %32 murriztuta beharko lirake isurketak). Era berean, garraio sektoreko jarduerak dira energiaren kontsumoan eta isurketen emisioan lehenak, baina sektore honen BEG isurketek ez dute murrizketarik izan eta herritarrok ibilgailu pribatua erabiltzen dugu nagusiki.


Egoera sozioekonomikoaren azterketatik ondorioztatzen dugu, langileon bizi baldintzen okertze estrukturala esparru ezberdinetan gauzatzen ari dela: bizitza duina bermatzeko diru sarrera gutxiago ditugu, oinarriko zerbitzu publikoen murrizketa zein pribatizazioa gertatzen ari da eta lan baldintza prekarioak egiturazkoak bilakatu dira. Lan baldintza prekarioek, bizi baldintzak prekarioak izatea eragiten du. Azken batean, langile klasearentzat prekaritateak zeharkaturiko eredu ekonomikoa finkatzen ari da.

ONDORIO NAGUSIEN AZTERKETA

1) Hazkunde ekonomikoa ez dator bat herritarron bizi kalitatearen bilakaerarekin

Gobernuek egiten dituzten aurreikuspenak egoera egonkor bat irudikatu arren, hazkundea ez da handia izatea espero eta testuinguru ezegonkor honetan, edozein gora-beherek egoera aldatu dezakete. 2023.urtean Hego Euskal Herrian Barne Produktu Gordina (BPG) %1,81 hazi zen, baina EB-27an geldialdia egon zen, Alemaniako BPG-ak izaniko jaitsierak eraginda, neurri handi batean. 2024.urterako, ordea, BPG egonkortuz joatea aurreikusten du Europako Banku Zentralak, hazkunde ekonomiko aurreikuspenak ezegonkorrak edota hauskorak izan arren, testuinguruak baldintzatuta.

BPG: URTE ARTEKO BILAKAERA



Iturria: Eustat, Nastat, Eurostat, Munduko Bankua eta Nazioarteko Diru Funtza (NDF) datuekin, guk egina

2022-2023 joera

Hego EH % 1,8	EB-27 % 0,4	Mundua % 3
-------------------------	-----------------------	----------------------


2024ko aurreikuspena

Hego EH % 1,77	EB-27 % 1,5	Mundua % 2,9
--------------------------	-----------------------	------------------------

Hazkunde ekonomikoaren garapena eta BPG-aren bilakaera parekatzeak eredu sozioekonomikoaren garapen integralean hutsune nabarmenak ditu, behin baino gehiagotan salatu dugun bezala. Eskuarrean duzun azterketa honetan aztertu ditugun adierazleek argi erakusten duten moduan, hazkunde ekonomikoa eta herritarren bizi kalitatearen egoera ez datoz bat.


- BPG-aren igoerak ez du langile klasearen baldintzatan eragin positibo zuzenik: soldatak BPG-ean duen pisua nabarmen galdu da...

Europar Batasunean soldatek BPG-ean duten pisua alderatzen badugu, argi ikusten da aldea handitzen ari dela, HEHko soldatek pisua proportzio handiagoan galdu dutela.



- ... aldiz, mozkinen pisuak gora egin du eta kapitala aberasten ari da.


Izan ere, soldatek galdu duten garrantzia, ustiapen soberakinak irabazi dute. Inflazio handiko garaiotan, langileok lorturiko soldata igoerak borroka sindikalari esker izan diren bitartean, kapitalak ez du galerarik izan.



- Politika fiskalaren bidez, ez da aberastasuna birbanatzen eta langileak gara funts publikora gehien bideratzen dugunok.

Soldaten garapena eta PFEZren bitartez lan atxikipenek izaniko bilakaera aztertzen badugu, garapen ia berbera izan dutela oharitzen gara. Lan atxikipenen garapena, ordea, goitik izan dira eta aldea handituz joan da; beraz, 2008.urtetik, langileok gara zergen bitartez esfortzu handiagoa egiten ari garenok


SOLDATA ETA LAN ATXIKIPENEN BILAKAERA (2005 URTEAN OINARRI)



Iturria: guk egina, NASTAT eta EUSTAT-etik

- Bestelakoa izan da kapital errentek eginiko zerga esfortzua 2008 urtetik aurrera. Izan ere, kapital errenten irabazien maila berean ez da handitu zerga bidez egin beharko luketen ekarpena, enpresa handi askoren kasuan irabazi historikoak lortu dituzten arren. Grafikoan ikus daitezkeen bi marren arteko aldea ez da estutu eta plusbaliaren bidez poltsikoak betetzen jarraitu dute.

USTIAPEN SOBERAKIN ETA SOZIETATE ZERGAREN BILAKAERA (2005 URTEAN OINARRI)




Iturria: guk egina, NASTAT eta EUSTAT-etik

2) Beraz, hazkunde ekonomikoa ez da eredu sozioekonomikoaren osasunaren adierazle

- Hazten ari den ekonomia zerbitzuetan oinarritua, finantzaria.

BPG-ak 2008tik 2023. urtera izaniko bilakaera aztertzen badugu, zerbitzuetan sustraituriko ekonomia eredu egiturazkoa dela nabarmenduko genuke, herri garapenean gakoak diren sektoreen kaltetan. Izan ere, industriak %2,87ko eta eraikuntza sektoreak %4,14ko galera izan dute BPG-ean, zerbitzuak sektorearena %6,24 handitu den bitartean. Zerbitzuak sektorean lan egiten duten herritarrek kopuruak ere igoera azpimarragarria izan du. Afiliazioari dagokionean, erregimen orokorrean izena emanda dauden langileen %73,43a zerbitzuak sektorean dago kokatua. Beraz, langileen gehiengoa lan baldintza prekarioak dituen sektorean lanean dihardu

SEKTOREEN PORTZENTAIA BPGEAN HEGO EHN (%, 2008-2023)



Iturria: Eustat eta Nastat


2008-2023 aldea



- Natura zein herritarron ongizate zein bizi kalitatearentzat jasanezina den ekoizpen zein kontsumo ereduak sustatzen du kapitalismoak

Horren adierazle, 2021.urtean Euskal Herrian biztanleko BEG isurketak mundu mailako balioak baino handiagoak izaten jarraitzea dutela da

GUZTIZKO BEG ISURKETAK PER CÁPITA, 2019 -2021



Iturria: ONU, Programa para el medio ambiente Emision Grap Report
Unitatea: tCO2-eq

3) Ehun ekonomikoaren bilakaerak, ekonomia ereduaren aldaketaren norabidea zertzelatzen du: pribatizazioa eta lan baldintzen (soldaten) okertzea


Gure herriaren ehun ekonomikoaren bilakaera ezagutzeko establezimenduen bilakaera aztertu dugu. Oro har, Hego Euskal Herrian ehun ekonomikoaren galera nabarmena da 2012.urtea abiapuntu gisa hartuta, establezimendu kopurua murriztu egin baita %12,13 (24.299 establezimendu gutxiago).

- Herri garapenarentzat gakoak diren sektoretan galera nabarmena jazo da.

Izan ere, industria (-%22,68) eta eraikuntza (-%27,04) sektoreetako establezimenduen beherakada izan da nabarmenena 2012az geroztik, sektore hauek izan duen gainbeheraren adierazle, BPG-an izaniko pisu galdera edota afiliazio datuek sektore hauetan gero eta langile gutxiagok lan egiten dutela berretsiz. Kontrako joeran kokatzen dira hezkuntza-osasungintza-zerbitzu sozialak (%22,03) eta bestelako zerbitzu pertsonalak (%11,72), goranzko joeran.

Arrazoi ezberdinak tarteko, kasu honetan ere, sektorearen pribatizazio etengabeak edota zerbitzu publikoen kalitatearen galerak zerikusia izan dezake


ESTABLEZIMENDUEN BILAKAERA, SEKTOREAREN ARABERA HEGO EH, 2012-2023 (%)



- Tamaina handiko (200 soldatapeko langiletik gorako) enpresa edota establezimenduak dira 2010.urtetik goranzko joeran doazen bakarrak.

Kasu honetan, zerbitzuak sektoreak BPGean irabazten ari den pisua edota zerbitzuak sektorean erregimen orokorreko afiliazioaren gehiengoak kokatua egoteak, tamaina handiko establezimenduak ere zerbitzuak sektorekoak izan daitekeela adieraz lezake.

ESTABLEZIMENDUEN BILAKAERA, TAMAINAREN ARABERA LANGILE KOPURUA, HEGO EH, 2012-2023 (%)




- Erregimen Orokorrean afiliaturiko langileen %73,43a zerbitzuak sektorean kokatua dago.

Nagusiki lan baldintza prekario zein ezegonkorrak dituen sektorean, hain zuzen ere. Bada, 2009an afiliaturiko langileen %65,74a zegoen zerbitzuak sektorean kokatua; beraz, duela 15 urte baino 159.403 langile gehiago daude zerbitzuetan afiliatuta Hego EH-an (7,69 proportzio puntu igo da)

4) Enplegu prekarioa, lan merkaturako igarobidea egiten duten eta egoera zaugarrian dauden herritarrentzat errezeta

- Afiliazioa maximo historikoetan egon arren (2024ko apirilean maximo historikoa lortu zen, Erregimen Orokorrean 1.058.944 afiliaturekin), sortzen ari den enplegu eskaintza prekarioa da eta ikusteko dago azken hilabeteen behin behineko kontratuen ugartzea joera bilakatzen ote den. Era berean, aldizkako kontratu finkoak bikoiztu egin dira.

AFILIAZIO-EHUNEKOA, KONTRATU MOTAREN ARABERA




Iturria: Espainiako Estatuko Gizarte Segurantzza
 *Datu hauek Erregimen Orokorrean afiliaturiko langileenak dira (nekazaritza eta etxeko langileen erregimen bereziak ez ditugu barneratu)

- Erregistratutako langabeziak gora egin du azken urtean, azkenaldiko joera kontrakoa izanik, eta langabezia tasak behera.

Azken urteetako joera kontrakoa izan delarik. Egoera hau ulertzeko, honako bi arrazoi azpimarratuko genituzke: 1) pasaden urtean baino 19.621 langile gehiago daude afiliatuta eta 949 herritar gehiago Lanbide eta Lansarean erregistratuta langabetu bezala; beraz, lana sortu arren, gero eta herritar gehiago dago lan bila izena emanda. Eta 2) HEHan pasa den urtean baino 77.000 herritar gehiago dago lan egiteko tenorean, 54.400 herritarrek egin dute lan merkaturanzko igarobidea (nagusiki, etxeko lanetara emanda zeudenak) eta 59.500 langile gehiago dira lana aurkitu dutenak. Aurreko urteetako proportzioak trukatu egin dira eta horregatik langabezia tasaren joera aldaketa gertatu da, baina langabetu kopuru absolutua ez da jaitsi.


ERREGISTRATUTAKO LANGABEZIAREN GARAPENA HEGO EUSKAL HERRIAN (2021-2024)



- Egoera zaugarrian dauden langileen artean, langabeziak gora egin du, bizi baldintzak ere prekarizatuz.

Langabeziak, lan errentarik ez edukitzea suposatzen du; egoera zaugarrian dauden kolektiboen kasuan, aldiz, diru sarrera nahikorik (edo diru sarrerarik ez) edukitzea. Langabezia dauden artean, kopuru oso altuetan daude migratzaileak (%25,5), 25 urtetik beherako gazteak (20,5) edota emakumeak (%9,2). Azken urtean zertxobait jaitsi arren, langabeziaren beherakada gertatu denean, kolektibo hauen bizkar gertatu da

LANGABEZIA TASA HEGO EUSKAL HERRIAN GENEROA, ADINA ETA NAZIONALITATEAREN ARABERA (2023-2024)



- Era berean, emakumeen langabezia tasa gizonezkoen tasaren gainetik kokatu da 2022. urtetik, egoera egiturazko bilakatuz.
- Lan baldintzei dagokionean ere, genero arrakala egiturazkoa da, emakumeon artean edo sektore feminizatueta lan baldintza prekarioan edota ezegonkorak nagusituz, jarraian dauden datuek argiki adierazten duten bezala:
 - Emakumeen artean, kontratu mugagabea %52ak du, gizonen artean %76ak duen bitartean
 - Aldizkako kontratu finkoen %5a emakumeak diren bitartean, gizonak %3a dira.
 - Jardunaldi partziala 4 emakumetik 1k du, 10 gizonetik bakarrik duen bitartean.

5) Herritarren arteko ezberdinkeriak gero eta sakonagoak dira, aberastasunaren birbanaketa orekaturik gabe

- Energia-ekoizpen enpresa handien irabaziak handituz doaz, baina funts publikoetara ez dute gehiago bideratzen, ezta langileon soldatara ere ez.

Kapital eta lan errenten arteko gatazka elikatzen jarraitzen du sistema kapitalistak. Izan ere, kapitalak langile klasearen lan zein bizi baldintzak prekarizatuz lortzen du aberastasuna metatzen jarraitzea, funts publiko edota soldatatan rebertitzen ez duen plusbalia edo irabazi garbiak direnak, alegia. Plusbalia horren birbanaketa da langile klaseak aldarrikatzen duen aberastasunaren banaketa. Aberastasuna sortzen da, arazoa da ez dela lan errenten bidez, zerbitzu publikoen bidez edota politika fiskalaren arabera birbanatzen.

Era berean, eztabaida faltsuak elikatzen dira, enpresen irabazi garbiak mantentzeko trikimailu berriei bidea erraztuz. Modu honetan, pertsonal gastuak edota langileon soldatak enpresaren etorkizuna baldintzatzen duten gastu gisa aurkezten zaizkigu maiz, funts publikoa handitzea edota trantsizio ekosozialean aurrera egitea lagunduko luketen zergak ordaindu beharrean.

Inflazio garaietan, non elektrizitate, gas edota besteko erregaien garestitzeak bizi unitateen gastua baldintzatzen ari den, elektrizitate-ekoizpen enpresa handiak izugarriko irabazi garbiak lortzen ari dira, 2021. urtetik esponentzialki gorantz doazenak. Langileen soldatara bideratzen duena, ordea, ez da irabazi garbietara bideratzen duenarekin inondik inora proportzionala.

- PETRONOR-ek, irabazi garbiak %693,21 handitu zituen 2022.urtean aurreko urtearekiko. Fakturaturiko 100€ bakoitzetik, 0,78€ bideratu zituen langileen soldatak ordaintzera eta boskoitza irabazi garbiak dira, 4,67€ 100€ bakoitzeko.

PETRONOR (Bizkaia)	Irabazi garbiak	
	Guztira 2022 (€)	Aurreko urtearekiko aldakuntza (%)
	470.931.000	693,21
	Fakturaturiko 100€ bakoitzetik	
Soldatak ordaintzeko	Irabazi garbiak	
0,78	4,67	

Iturria: Axesor, enpresak erregistro merkantilean aurkeztua

- IBERDROLAK %5,53 handitu zituen irabazi garbiak 2023.urtean. Fakturaturiko 100€ bakoitzeko, 5,6€ bideratzen ditu langileen soldata ordaintzeko eta 10,98€ irabazi garbiak dira, bikoitza, alegia. Ez hori bakarrik, 2022an %16,96 handitu baitzituen irabazi garbiak, energia iturrien (zehazki elektrizitatea) inflazioa maximoetan egon zenean, hain zuzen ere. Beraz, 2021 eta 2023 urteen artean %23,43 handitu zituen Iberdrolak irabazi garbiak, inflazioarekin negoziatuz eginez, herritarren elektrizitate fakturen garestitzearen ondorioz.

IBERDROLA (Bizkaia)	Irabazi garbiak	
	Guztira 2023 (€)	Aurreko urtearekiko aldakuntza (%)
	55.415.000.000	5,53
	Fakturaturiko 100€ bakoitzetik	
Soldatak ordaintzeko	Irabazi garbiak	
5,6	10,98	

Iturria: Iberdrolaren webgunea (iberdrola.com)

- CAF enpresak ere izugarri handitu zituen irabazi garbiak 2023.urtean, aurreko urtearekiko %68,27 hain zuzen ere. Nahikoa ez izan arren, fakturatzen duen 100€ bakoitzeko, soldatak ordaintzera 24,72€ bideratzen du, lortzen dituen irabazi garbiak (3,27€) baino 7 aldiz gehiago. Kasu honetan, balioan jarri behar dugu lan sindikala; ordezkartzaren gehiengoa LAB sindikatuarena izanik, CAF-eko langile guztien lan baldintzen hobekuntzaren eta, zehazki, soldata igoeren aldeko ekintza sindikala da nagusi.


CAF (Gipuzkoa)	Irabazi garbiak	
	Guztira 2023 (€)	Aurreko urtearekiko aldakuntza (%)
	92.317.000	68,27
	Fakturaturiko 100€ bakoitzetik	
Soldatak ordaintzeko	Irabazi garbiak	
24,72	3,27	

Iturria: CAF-eko webgunea (caf.net/eu)

• HEHaren presio fiskala handitzea posiblea da.

- Zerga politikaren iruzurrak gaindituz (legea betez), herritarrok gehiago ordaindu gabe, enpresa handiei dagozkien zergak ordainduko balituzkete. HEHan zerga politikaren bidez jasotzen den dirua EB-ean jasotzen den kopurua baino baxuagoa da (8,6 puntu baxuagoa, hain zuzen ere). Beraz, presio fiskala handitzeko margena egon badago, plusbalia gutxi batzuen aberastasuna handitzera bideratu ordez, funts publikoa handitzera bideratuko balitz, herritar guztiontzat zerbitzu publikoak hobetzeko aukera indartuz.

PRESIO FISKALA EUROPAN (2022 URTEA)




Iturria: Geuk egina Eurostat, Eustat, Nastat eta Espainiako Estatuko Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiaren datuekin (EEGSDN)

6) Bizitzaren garestitzeak zuzenean eragiten dio egoera zaugarrian dauden herritarrei. 2023an Hego Euskal Herrian 457.129 herritar zeuden pobrezia eta bazterketa sozialerako arriskuan.

• Oinarrizko elikagaien prezioak gorantz egiten jarraitzen du eta KPI-a baino altuagoa da.

2021.urtean KPIa modu nabarmen zein azkarrean igotzen hasi zenetik, oinarrizko elikagai zein edari ez-alkoholdunak dira gehien garestitu direnak. Gaur egun, KPI-aren urte arteko batz besteko aldakuntza orokorra (EAE-n %3,2 eta Nafarroa Garaian %3,4) oinarrizko elikagai zein edari ez-alkoholdunei aplikatzen zaienaren (EAE-n %4,6 eta Nafarroan %4,5) azpitik dago. Era berean, 2021.urtean KPI-aren gorakada orokorra energia iturrien (petrolio, elektrizitatea...) garestitzearen ondorio zuzena izan zen eta ondoren etorri zen oinarrizko elikagaien garestitzea, inflazioaren ondorio zuzena izan da, urte betera maximoetan egon zena.

KPI-AREN BILAKAERA 2017 -2024 (%)




Iturria: INE - Kontsumo Prezioen Indizea

- Bizitzaren garestitzeari aurre egin ezinik, etxebizitzaren prezioak gora egiten jarraitzen dute.

EBZ-ren erabakiz, inflazioari aurre egiteko igo ziren interes tasak eta inflazioak jarraitzen duenez, balio oso altuetan mantentzen dira. Europar Batasuneko bankuek elkarri salerositako mailegetan ezarritako batez besteko interes-tasen erreferentzia nagusia da Euriborra. Ondorioz, bankuek herritarrei eskaintzen dizkien maileguak ere garestitu egin dira, ohikoenak etxebizitza-hipotekak. Hortaz, eguneroko oinarrizko produktuak garestitzen ari diren bitartean, langileon diru-sarreraren gero eta proportzio handiagoa bideratzen dugun etxebizitza gastua ere nabarmen handitzen ari da.

Kapitalaren interesak babesten dituen sistemak, energia iturriak sortutako inflazioa langileon bizkar utzi du, interes tasak handituz kontsumo ahalmena okertuz eta bankuek emaitza ia historikoak lortuz. Sistema kapitalistak, egungo errealitate sozioekonomikoari erantzuten ez dion Phillips Kurbaren Teoria hartzen du oinarri gisa hau egiteko.

Beraz, sistema iraunarazi nahi duenak, aberastasunaren banaketa justurako urratsak eman beharrez, bizitza eta kapitalaren arteko gatazkan sakontzen du, langile klasearen bizitzen kontura, kapitalak aberastasuna metatuz.



Iturria: Espainiako Bankua. Urte bakoitzeko martxoko datuak erabilia.

- Diru sarrera gutxiago egon arren, etxeetako gastua handitu da, kontratu motak gastuan eragin zuzena duelarik.

Nafarroa Garaian, bizi unitatearen sostengatzaile nagusienaren kontratu motak bizi unitatearen gastua baldintzatzen du. Behin betiko kontratua edo behin behineko kontratua edukitzeak, bizi unitatearen gastu gaitasuna ezaugarritzen du;

BATEZ BESTEKO GASTUAREN ALDERAKETA, DIRU SARREREN ARABERA. NAFARROA, 2022	
Sustengatzaile nagusiak behin betiko kontratua duten bizi unitateak	Sustengatzaile nagusiak behin behineko kontratua duten bizi unitateak
36.290,53€ ko gastua batz beste	23.563,75€ ko gastua batz beste
Behin behineko kontratua duten bizi unitateak baino +%54,01 gastu gehiago	Behin betiko kontratua duten bizi unitateak baino -%54,01 gastu gutxiago

BATEZ BESTEKO GASTUAREN ALDERAKETA, DIRU SARREREN ARABERA. NAFARROA, 2019-2022	
Sustengatzaile nagusiak behin betiko kontratua duten bizi unitateak	Sustengatzaile nagusiak behin behineko kontratua duten bizi unitateak
+ %0,72 handitu dute euren gastua	- %5,20 murriztu dute euren gastua

- Era berean, kontratu motaren arabera, gastua nora bideratzen den ere azter dezakegu. Bizi unitate baten batz besteko elikadura, etxebizitza, garraio zein komunikazio edota aisialdi gastua, kontratu motak baldintzatzen du. Oinarrizko kontsumo esparruetan, enpleguaren kalitatearen araberrako eskubide murrizketa edota bizi kalitatearen galera dago. 2021 eta 2022. urteen artean gastua esparru guztietan handitu arren, gehiago handitu da behin betiko kontratua dutenen kasuan. Modu honetan, diru-sarrera handiagoak dituztenez, inbertsio handiagoa egin dezakete bizi unitatearen kalitatean.

BIZI UNITATEEN BATEZ BESTEKO GASTUA, KONTSUMO ESPARRUKA. NAFARROA GARAIA, 2021-2022	
ELIKADURA GASTUA	
Behin betiko kontratua	6.852,10
Behin behineko kontratua	4.277,25
Ezberdintasuna	-2.574,85
ETXEBIZITZA GASTUA	
Behin betiko kontratua	12.742,68
Behin behineko kontratua	9.181,90
Ezberdintasuna	-3.560,78
GARRAIO ETA KOMUNIKAZIO GASTUA	
Behin betiko kontratua	5.573,35
Behin behineko kontratua	3.568,07
Ezberdintasuna	-2.005,28
AISIALDI GASTUA	
Behin betiko kontratua	7.649,35
Behin behineko kontratua	4.219,49
Ezberdintasuna	-3.429,86


- Elikadura gastuaren igoera orokorra izan da, oinarrizko elikagai zein edari ez-alkoholdunetan KPI-ak izaniko igoeraren ondorioz. Sostengatzaile nagusiak behin betiko kontratua izan duten bizi unitateek %8,78 gehiago gastatu dute, behin behineko kontratua dutenen kasuan, gorakada %4,11koa izan da. Beraz, prezien garestitzea guztiontzat berbera izan bada, baina batzuek dexente gutxiago gastatu badute, gutxiago erosteko ahalmena izan dute.

ELIKADURA BATAZ BESTEKO GASTUA	Behin betiko kontratua	Behin behineko kontratua
		+ %8,78 ↑

- Araba, Gipuzkoa eta Bizkaian, bizi unitatearen kalitatea, diru sarreren arabera da.

Diru sarreren arabera, EAEko bizi unitateen gastuaren banaketa oso argia da: diru-sarrera gehien dituzten bizi unitateek gehiago gastatzen dute. Kasu honetan, ordea, ez da kontutan hartzen bizi unitatea osatzen duten kide kopurua. Modu honetan, EAE-ko gastu guztiaren %47,3a 3.000€tik gorako diru-sarrerak dituzten bizi unitateek egiten duten bitartean, %4a 999€ edo diru-sarrera baxuagoak dituzten bizi unitateei dagokio

EAE-KO GASTU GUZTIAREN BANAKETA, BIZI UNITATEAREN DIRU-SARREREN ARABERA EAE - 2022




Iturria: Eustat. Encuesta de gasto familiar

• **Gabezia materiala.**

- Hainbat elementu materialen gabezia duten pertsonak daudenean sortzen da eta zaurgarritasunari hertsiki lotuagoa egon arren, pobrezia mota bat da. Bada, 2023an gabezia materialerako arrazoi nagusiak, honakoak izan ziren, gero eta herritar gehiago egoera zaurgarrian daudela adierazten duena, aurreikusi gabeko gastu edo ustekabekoei aurre egiteko ezintasunarekin:
 - EAE eta Nafarroa Garaian, aurreikusi gabeko gastuei aurre egiteko ezintasuna gailentzen da, %21,4 eta %26,1 hurrenez hurren.
 - Bigarren arrazoi gisa Nafarroa Garaiko herritarren %22,6ak "urtean, gutxienez aste bete, oporretara joateko ezintasuna" kokatu du eta EAEn %21,4ak "altzari zahar edo hondatuak ordezkatzeko ezintasuna" du

GABEZIA MATERIALA DUTEN ETXEBIZITZA UNITATEAK KONTZEPTUEN ARABERA




• **Mantenu pobrezia¹.**

- EAEn izaniko gorakadak argi erakusten du zaurgarritasun egoerak herritarren artean izan duen zabalpena. Izan ere, 2008tik 2022 urteen artean %28,07a egin du gora. Nor dago mantenu pobrezian?
 - EMAKUMEAK (59,7). Izan ere, 2008an gizonak ziren mantenu pobrezia %71,2a pairatzen zutenak, 2022an gehiengoak emakumea izatera pasa da (%59,7a). Errealitate honen atzean arrazoi ezberdinak egon arren (familia eredu anitzak, emakumea izatea bizi unitatearen sustengu nagusia...), emakumeak lan merkatuan jasaten duen prekarietateak pisu handia duela uler daiteke.
 - 45 URTETIK GORA artean igo da gehien 2008 – 2022 artean
 - Lan egoerak zuzeneko eragina du mantenu pobrezian: LAN EGOERA EZ-AKTIBOAN, hau da, lana bilatzen ez duten herritarrak, dira mantenu pobrezia batzen ari direnak (2008 eta 2022 artean %9,4 izatetik %11,6 izatera pasa dira)
 - Lehen lurralde eremu batean kontzentratuago bizi ziren mantenu pobrezian zeuden herritarrak. 2022An ESKUALDE GEHIAGOTAN BERREIATUTA (Bilbo, Gasteiz, Durangaldea, Tolosaldea, Debarrena).
- Biztanleria pobreenaren batz besteko diru sarrerak %15,4 jaitsi ziren 2022an EAEn, aberatsena den biztanleriaren batz besteko diru sarrerak %4,2a jaitsi diren bitartean.

1 Mantenu pobrezia oinarriko premien estaldurari erregularitasunez heltzeko baliabide ekonomikoaren eskasari egiten dio erreferentzia, bereziki elikaduraren, etxebizitzaren, jantzi eta oinetakoaren gastuei lotutakoei. Araba, Gipuzkoa eta Bizkaiko Pobrezia eta Bazterketa Sozialari buruzko Inkesta.

- Europan BPGaren garapenean hazkunde ekonomiko handiko estatuetan 2020.urtez geroztik pobrezia eta bazterketa sozialerako arriskuak goranzko joera hartu du; hortaz, lurralde hauetan sortzen den aberastasuna gutxi batzuen poltsikoetara bideratzen dela pentsa liteke.




7) Ibilgailu pribatuarekiko menpekotasun sozial eta ekonomikoak sortzen duen mugikortasun eredu nagusi Euskal Herrian, garraioa izanik BEG isurketa gehien sortzen duen sektoreka.

- EAE-n legeak ezartzen dituen helburuetatik urrun.


BEG isurketen neurketak egiten hasi ziren 1990.urte hartatik, guztizko BEG isurketak %15,84 murriztu dira EAEn. Hala ere, trantsizio energetiko zein larrialdi klimatikoari buruzko legeek 2030rako BEG isurketak %32a murriztea eta 2045-2050 urterako neutralizatzea zehazten dute. Martxa honetan, ezinezkoa.

EAE-n garraioak guztizko BEG isurketen gero eta proportzio handiagoa hartzen du. Izan ere, 1990etik 2021. urteko bilakaera aztertuz, isurketa guztien proportzioa 21,54 handitu du, industriaren proportzioa 14,88 puntu jaitsi den bitartean.



Iturria: ekonomiaren Garapen, jasangarritasun eta Ingurumen Saila. IHOBE "Euskadiko Berotegi Eftukoko Gasen isurketen inbentarioa, 2021).
Unitateak: Unitatea: Miles de toneladas CO2 equivalentes


- Nafarroa Garaian, aldiz, %12 egin du gora BEG isurketek. 1990.urtetik sektore bakoitzaren guztizko BEG isurketen proportzioa ez da apenas aldatu. Kasu honetan, energiari loturiko jarduerak dira BEG isurketa gehien sortzen dituztenak. EAE eta Nafarroan metodologia ezberdina erabiltzen denez neurketa hauek egiteko, ezin ditugu bilakaerak alderatu



- Garraioa da energiaren kontsumoan zein isurketen emisioan lehena, eta eragin ekologikoan hazkunde-erritmo handiena duen sektorea.

Eragin horren zatirik handiena errepideko garraioan gertatzen da, eta, horren barruan, salgaien garraioan eta ibilgailu pribatuen erabileran. Herritarron erantzukizun hutsa izatetik urrun, automobilgintzaren inguruan sortu diren mendekotasun sozialak, ekonomikoak eta ekologikoak eragin handia duela ulertu behar da. BEG isurketa ahalik eta txikiena duten garraio bide kolektiboen erabilera sustatzea, erraztea edota horretarako aukera berdintasuna bermatzea, politika publikoen lehentasun beharko luke, datuek politiken norabidea beste bat dela argitzen dute, zoritxarrez.

MUGIKORTASUNA, GARRAIO MOTAREN ARABERA EAE (%) 2015-2021



Iturria: Euskadiko garraioaren Panoramikoa, 2022

- EAE-n motorizazio indizea gora egin du 2021.urtetik (2022an, 462,9 automobil 1.000 biztanleko). Joan-etorrien motibazio nagusia (%32) lana da. Generoaren araberako ezberdintasunak agerizkoak dira, kasu honetan ere: emakumezkoen %31,4ak ibilgailu pribatua erabiltzen duen bitartean, gizonezkoen artean %48a da.
- Nafarroa Garaian, eskualdeko mugikortasunaren ezaugarri nagusia errepidearen erabateko nagusitasuna da. Ibilgailu motordunen hiriarteko mugikortasunaren % 96,4 ibilgailu pribatuan egiten da. Pertsonen ibilgailu pribatua aukeratzeko funtsezko arrazoi bat ibilbide bererako denbora-aldea da.
- Ipar Euskal Herriko ezaugarri soziopolitikoak tarteko, desplazamenduen arrazoi nagusia etxea abiapuntu zein helmuga duten ibilbidea izan arren, %28,8ak etxetik lanerako joan-etorriak dira. Hau da, derrigorrez egin beharreko desplazamenduak.



iparhegoa

IKASKETA
SINDIKALETARAKO
FUNDAZIOA